



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko apirilaren 22a

57. ZK.

A U R K I B I D E A

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duena. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntzako kontseilaria gaitzesten da. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko proiektua geldiaraz dezan. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero indarkeriaren salaketan erretiratzeari buruzko azterlan bat egin dezan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat presta dezan, genero indarkeriarekin lotutako faktoreak ezagutze aldera, eta dauden egiturazko arazoak ezagutzeko eta horiei aurre egiteko behar diren baliabide publikoak berma ditzan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarekin sina dezan erkidegoen arteko deribazio-protokoloa, genero indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzendua. Mozioa erretiratzea (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie libreki manifestatzeko eskubidea baliatzeagatik isuna jarri zaien pertsonen, eta Alderdi Popularraren abortuaren legearen proiektua arbuiatzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroak direla eta neurriak hartuko ote diren jakitekoa, M.^a del Carmen Ochoa Canela andreak egin (10. or.).

- Galdera, Justiziako Gizarte Zerbitzuko funtzionarioak ez ordezteko arrazoiei buruzkoa, Santos Cerdán León jaunak egina (11. or.).
- Galdera, eskualde-laguntzen mapa berriaren definizioari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (11. or.).
- Galdera, epe luzeko langileen eta 45 urte baino gehiago dutenen enplegarritasuna sustatzeko asmoz 2014an indarra duten politikei eta datozen urteetarako aurreikusten direnei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (12. or.).
- Galdera, mugako nortasun-nahasmenduaren laguntza integratuari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxan dituen aktiboak eta pasiboak Banca Cívica-ren alde banatzea baimentzeko erabakirik ez hartzeko arrazoiari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Sustapen Ministerioak aurreikusten duen trenbide-plangintzari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (14. or.).

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabi-liz eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua-ren babesean, Izquierda-Ezkerra parla-mentu-taldeak Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 212. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

1. Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena izapidetzeko onar-tzea eta agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lege proposamena, Hipoteka Legeko 206. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

1855eko maiatzaren 1eko Legeak Estatuaren eta Elizaren ondasunen desamortizazio orokorra arautu zuen, eta 1860ko abuztuaren 21eko Errege Dekretuak, berriz, desamortizazio orokor horretatik salbuetsitako ondasunak ezarri zituen. Errege dekretu horrek, Egoitza Santuarekiko hitzarmena garatuz –hitzarmena 1860ko apirilaren 4ko Lege bidez onetsi zen–, elizbarrutiei agindu zien bakoitzak bere elizbarrutian zeuden ondasunen zerrenda bat egin zezan elizbarrutiaren artxiboetan sartzeko, eta formula bat aurreikusi zuen, Estatuaren ondasun higiezinertarako zegoenaren antzekoa,

horiek erregistroan inskribatzeko. 1863ko azaroaren 6ko Errege Dekretuak edukitza-ziurtagiriaren araubidea onetsi zuen, ondasun higiezinak 1861ean sortutako Jabetzaren Erregistroan inskribatu ahal izateko, jabetza frogatu ezin den titulu idatzirik ez dagoen kasuetan, eta apezpikuei ahalmena eman zien edukitza-ziurtagiriak emateko. Gisako xedapenek antolamendu juridikoan iraun dute 1944tik 1947ra bitarte egindako hipoteka-erreforman, eta hortik heldu dira gaur egun indarrean daudenak.

Estatuaren Ondarearen Oinarriak arautzen dituen 1964ko apirilaren 23ko Legeak desamortizazio-legedia indargabetu bazuen ere, formalki indarrean jarraitzen du Eliza Katolikoaren jabetza-titulurik gabeko ondasunak inmatrikulatzeko prozedura ezartzeko aplikatzekoa den araudiak; zehazki, 1946ko otsailaren 8ko Hipoteka Legearen testu bategineko 206. artikulua eta 1947ko otsailaren 14ko Dekretu bidez onetsitako Hipoteka Erregelamenduko 304. artikulua. Irailaren 4ko 1867/1998 Errege Dekretu bidez onetsitako Hipoteka Erregelamenduaren aldaketaren arabera, kendu egin zen 5.4 artikuluan jasotako salbuespena, zeinaren bidez gurtza katolikorako tenpluak erregistro-inskripzioetik salbuesten baitziren. Eliza Katolikoa Estatuarekin, probintziarekin, udalarekin nahiz zuzenbide publikoko korporazioekin parekatzen duten aipatu manu horiek aldatzeko aukera pasatzen utzi zen, elizaren titulartasuneko ondasun higiezinaren inmatrikulatzea errazteko eta elizbarrutiak kasuko ziurtagiriak ematera legitimatzeko, egiazko funtzionario publikoen maila berean jarritz horrela.

Estatuaren akonfesionaltasun-printzipioa, Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan jaso, nekez ezkon liteke legeak erlijio bati oraindik ere Konstituzio aurreko aparteko abantaila bat ematearekin, bere ministroak fede-emaile publikoekin parekatzen dituen. Estatuak erlijioekin lankidetzan aritzeko betebeharra dauka Konstituzioko manu horren arabera, baina horrek ez du abantaila hori inolaz ere babesten. Erlijioak ezin dira inolaz ere joan berezkoak dituzten xedeez harago,

eta ezin dira botere publikoekin parekatu. Konstituzio-jurisprudentziak ezarritik duenez, 16. artikulua erlijio-eginkizunen eta estatuaren eginkizunen arteko nahasmen oro galarazten du. Estatuaren eginkizunak betetzen dituen funtzionario edo agente publiko bat da Estatuaren ondasunen jabetza ziurtatzen duen agintea. Eliza katolikoaren ondasunen jabetza-ziurtagiriak frogatzeko aukera oraindik ere onartzen zien apezpikuen kasuan, aldiz, ez da inondik ere ageri agintari publikoaren izaera.

Amaitu egin behar da, hortaz, Estatu konfesional bati dagokion egoera hori, Espainiako 1978ko Konstituzio indardunaren aurrekoa eta horrekiko bateraezina; izan ere, nahasi egiten ditu botere publikoek berezkoak dituzten eginkizunak eta erlijio batenak.

Artikulu bakarra. 1946ko otsailaren 8ko Hipoteka Legearen testu bategineko 206. artikulua aldatu eta honela geldituko da:

“206. artikulua. Administrazio publikoen ondasun higiezinak inskribatzea.

Estatuak, autonomia erkidegoek, probintziek, udalek nahiz haien mendeko gainontzeko erakunde publikoek eta zuzenbide publikoko gainontzeko korporazioek beren jabetzako ondasun higiezinak

inskribatu ahal izanen dituzte, baldin eta jabetza-titulu idatzirik ez badaukate, horien administrazioaren ardura duen funtzionarioak emandako kasuko ziurtagiriaren bidez, zeinean jasoko baita erosketatitulu edo horiek erosteko baliatutako modua.

Arestiko paragrafoan adierazitako moduan eta kasu bakoitzean ezarritako gainontzeko baldintzekin emandako administrazio-ziurtagiri bidez inskribatu ahal izanen dira hiri-finken obra berriaren deklarazioa, hobekuntzak eta banaketa horizontala, eta, baldin eta ez badiete hirugarrenei eragiten, Estatuaren nahiz gainontzeko estatu-ente publiko ziurtatzaileen finkak elkartzeko, banatzeko, erans-teko eta bereizteko operazioak”

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe uzten dira lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, zehazki, 1947ko otsailaren 14ko Dekretu bidez onetsitako Hipoteka Erregelamenduko 304. artikuluko azken esaldia; honako hau, alegia: “Elizaren ondasunen kasuan, kasuko elizbarrutiek emanen dituzte ziurtagiriak”

Azken xedapena

Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean lege hau.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntzako kontseilaria gaitzesten da.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntzako kontseilaria gaitzesten baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ehuneko 30 murriztu nahi du udalen haur-eskolak finantzatze aldera orain arte egiten zuen ekarpena, eta horrek arriskuan jarriko du haur-eskola askoren bideragarritasuna, eta neska-mutikoen zerbitzu hori baliatu ahal ez izatea ekarriko du, familiek ezin izanen dutelako ordaindu.

Argi dago neurri ekonomiko austerizida bat dela, adingabeen eskubideen aurka eta lana eta

familia bateragarri egin ahal izatearen aurka doana. Zehazki, eragozpen gehiago jartzen dizkie okerren dauden familiei, behar adinako diru-sarrerak ez izateagatik edo/eta langabezian egoteagatik, horiek izanen baitira neurri honen ondorio negatiboak pairatuko dituztenak.

Nafarroako Gobernuak udal zerbitzuen baldintza ekonomikoak aldatzen ditu, alde zurretik ezer esan gabe, nahiz eta zerbitzu horiek denbora daramaten aurreikusitako baldintzetan funtzionatzen. Orain, ordea, baldintza horiek aldatu nahi dira. Udalen haur-eskolen kasuan, 2013ko irailetik hona.

Murrizketa horrek egoera oso zailean jartzen ditu Nafarroako udalak, lehendik ere kasurik gehienetan egoera ekonomikoa zaila bazen ere. Udal entitateen urritasuna beste koska bat gehiago estutzen da, Gobernuak behin eta berriro murrizten baitu haien finantzaketa.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzako kontseilari Iribas jauna gaitzesten du, eta bere jokabidea arbuiatzen, batetik, udalen haur-eskolen finantzaketa murrizteagatik, horrek eragin oso negatiboa izanen duelako udalen diru-kutxetan eta familiengan, eta arriskuan jartzen duelako haur-eskolen bideragarritasuna, eta, bestetik, hitzarmenaren baldintzak aldatzeko erabilitako prozedurarengatik.

Iruñean, 2014ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko proiektua geldiaraz dezan.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Esako urtegia handitzeko proiektua geldiaraz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Urtebete baino gehiago igaro da Esako urtegi-ko eskuinaldeko mazelan ezegonkortasun arazoak azaldu zirenetik, eta gaur egun bere horretan diraute segurtasun arazo larriek.

Urtegia handitzeko obretan bata bestearen ondotik gertatzen ari diren arazoen agerian jarri dute Esako itxierako mazela ezegonkorrean ura biltzeak dakarren arrisku handia.

2006ko eta 2012ko lerradura handiek, zeinen ondorioz bi urbanizazio hustu baitziren eta hamar ka milioi inbertitu baitziren mazelak egonkortzeko ahalegin hutsaletan, arazoia ematen diete teknikari independenteek 1993tik aitzina egindako ohartarazpenei.

Urtegia handitzeko proiektua gastu publiko neurrigabea eragiten ari da. Ezegonkortasun arazoak konpontzeko inbertsioak hazten jarraitzen du, baina gaur egun ez dago behin betiko konponbide baterako bermerik; izan ere, lerradurak zeri zor zaizkion ere ez dakigu.

Bestalde, badira beste aukera batzuk, segurtasuna eta egungo urtegiaren erabilerak bateragarri egiten dituztenak, eta, gauzak zertan diren ikusita, horiek nahitaez jorratu beharra dago.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Esako urtegia handitzeko proiektua geldiaraz dezan, bai segurtasun arazo etengabeengatik, bai ekonomiaren nola gizartearen eta ingurumenaren aldetik daukan iraungarritasun faltagatik ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Esako urtegia ez dezan bete kota seguru baten gainetik, presaren inguruko lurren ezegonkortasun arazoaren arrazoia zein den jakin arte eta presaren ezegonkortasun arazoak konpondu arte.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu azterlan independente bat egin dezaten Esako urtegiaren segurtasunari eta urtegiaren ezegonkortasun arazoaren konponbideari buruz.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu Esako urtegia handitzearekin aurreikusten den ur-hornidurarako beste aukera batzuk bilatu eta azter ditzaten.

Iruñean, 2014ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da genero indarkeriaren salaketen erretiratzeari buruzko azterlan bat egin dezan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita genero indarkeriaren salaketen erretiratzeari buruzko azterlan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernua generoko indarkeriaren salaketen erretiratzeari buruzko azterlan bat egitera premiatzen duen mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Espainian oraindik orain dagoen arazo larri eta egiazko gaitz sozial horren egoerari eta bilakaerari buruzko datu estatistikoak ematen ditu Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak, Generoko eta etxeko indarkeriaren aurkako Behatokiak.

Generoko eta etxeko indarkeriaren aurkako Behatokiak 2013ari buruzko datuak eman zituen ezagutzera iragan apirilaren 3an; horien arabera, Nafarroak azken urteotako joera mantentzen du, eta, halatan, generoko indarkeria dela-eta aurkeztutako salaketa gehien erretiratzen den erkidegoa da. Beste datu aipagarri bat da gure erkidegoan aurkeztutako salaketa-kopuru txikia. Laburbilduz, Nafarroan salaketa gutxiago aurkezten dira generoko indarkeria dela-eta, eta Espainian baino askoz ere handiagoa da erretiratzen diren salaketen ehunekoak.

Generoko eta etxeko indarkeriaren aurkako Behatokiaren datuak, erkidegoen araberrako konparazioa egitea ahalbidetzen dutenak, 2008tik aitzina daude baliagarri. Salaketen erretiratzeari dagokionez, datu ofizialetatik ondorioztatzen ahal da Nafarroa dela 2008-2013 aldian salaketa gehien erretiratzen den erkidegoa.

Generoko indarkeria dela-eta aurkeztutako salaketen erretiratzearen auzia aztertu zuen Parlamentuaren lan bilera batean Nafarroako Probintzia Auzitegiko lehendakari eta Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren Generoko eta etxeko indarkeriaren aurkako Behatokiko adituen taldeko kide Esther Ericek.

Esther Ericek parlamentu-taldeei adierazi zenez, diziplina anitzeko azterlan bat egin beharra dago, aztertze aldera zer arrazoi egon litekeen Nafarroan erretiratutako salaketen kopurua hain handia izateko.

Bestalde, iragan martxoaren 11n, Gizarte Politiketako kontseilari Iñigo Allik departamentuaren 2014rako helburu nagusiak aurkeztu zizkien heda-bideei. Horien artean daude Nafarroan generoko indarkeriaren egoerari buruzko diagnosiak bukatzea eta generoko indarkeriari buruzko foru lege berria eta arloari buruzko plan estrategikoa taxutzea.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Diziplina anitzeko azterlan bat egitera, aztertze aldera zer arrazoi zehatz egon litezkeen Nafarroan erretiratutako salaketen kopurua hain handia izateko.

2. Azterlanaren ondorioak jasotzera generoko indarkeriari buruzko foru lege berria eta arloari buruzko plan estrategikoa taxutzeko prozesuan.

3. Azterlanaren ondorioak ikusita, generoko indarkeriaren biktimei laguntze aldera Nafarroan aplikatzen den jarduketa koordinatuaren protokoloa berrikustera, kasua bada.

Iruñean, 2014ko apirilaren 9an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat presta dezan, genero indarkeriarekin lotutako faktoreak ezagutze aldera, eta dauden egiturazko arrazoiak ezagutzeko eta horiei aurre egiteko behar diren baliabide publikoak berma ditzan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat presta dezan, genero indarkeriarekin lotutako faktoreak ezagutze aldera, eta dauden egiturazko arrazoiak ezagutzeko eta horiei aurre egiteko behar diren baliabide publikoak berma ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Genero-indarkeria gure kulturaren geruza sakonenetan sustraitutako errealitatea da, eta horixe bera jarri du agerian EBko Oinarrizko Eskubideen Agentziak estatu kideetan auzi larri honi buruz egin duen inkestari handienak. Inkesta horretan emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu konparagarriak jasotzen dira, EBko herrialde guztietakoak, eta, hartara, prebentzio eta jarduketa kanpainak hobetzen lagun dezake.

Halatan, emakumeek esaten dute 15 urte zituztenetik egungo nahiz iraganeko bikotekideak eragindako indarkeria fisikoa edo sexu-indarkeriaren biktima izan direla dio % 52k Danimarkan, % 47k Finlandian eta % 46k Suedian. Ondotik datoz Holanda (% 45), Frantzia eta Erresuma Batua (% 44). Horiek dira emakume gehiagok indarkeriaren biktima izan direla aitortzen duten herrialdeak.

EBn indarkeriak eragin gutxien duen herrialdeen artean daude, berriz, Espainia (% 22), Polonia (% 19), Austria (% 20), Kroazia (% 21) eta Zipre (% 22).

Gizarte Politiketako Batzordeak orain dela gutxi egindako lan bilera batean, Nafarroako Probintzia Auzitegiko lehendakari eta Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren Generoko eta etxeko indarkeriaren aurkako Behatokiko adituen taldeko kide Esther Ericsek aitortu zuen zailtasunak daudela zenbait daturen funtsera heltzeko; esate baterako, erretiratutako salaketa-kopuru handia, beste autonomia erkidego batzuetan baino askoz ere handiagoa baita. Orobat adierazi zuen datuak ez direla unibokoak eta interpretazioa, hortaz, hipotesien esparruan mugitzen dela.

Halere, nabarmendu zuen azterlan enpiriko sakon bat egin beharra dagoela, jarduketa errealistak ezarri ahal izateko moduko datuak, arrazoi anitzeko fenomeno baten konplexutasuna bilduko dutenak, edukitze aldera.

Generoko indarkeriaren aurkako foru legea taxutzeko lehen urratsak egiteko testuinguruan, zeinetan esparru horretako adituak lan egiten ari baitira, azpimarra jarri nahi dugu gure ustez garrantzi berezia duten zenbait auzitan. Hori dela-eta, honoko erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Azterlan enpiriko bat egin dezan, zehaztasun handiagoarekin ezagutu ahal izateko generoko indarkeriarekin zerikusia duten faktoreak; besteak beste, zer arrazoi egon daitekeen aurkeztutako salaketak erretiratzearen atzean, zer jarrera eduki ohi den nerabezaroan, zer eragin izan dezaketen gizarte-sareek, eta diagnosi hobea egiten lagun dezakeen beste edozein faktore, generoko indarkeria arian-arian desagerrarazteko neurririk egokiak taxutzeko.

- Gaitz horren egiturazko arrazoiak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabide publikoak berma ditzan, generoko indarkeriaren aurka borrokatzeko eta prebenitzeko baliabide eta zerbitzu espezializatuak eta legegintza

tza arloko neurriak ezartzea ahalbidetuko duten aurrekontu-zuzkidura bermatuz.

- Ezartzen ahal diren neurriak azter eta har ditzan, laguntza eta babes sarea baliatu ahal izateko ez dadin beharrezkoa izan salaketa bat paratzea.
- Generoko indarkeriaren aurkako borrokaren eta berdintasunaren arloko prestakuntza sustatzea

egoera hori bizi duten emakumeak artatu behar dituzten profesionalen artean.

- Generoko indarkeriaren aurkako borrokaren eta berdintasunaren arloko hezkuntza-programak sendotu ditzan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 10ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarekin sina dezan erkidegoen arteko deribazio-protokoloa, genero indarkeria pairatzen duten emakumei zuzendua.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarekin sina zezan erkidegoen arteko deribazio-pro-

tokoloa, genero indarkeria pairatzen duten emakumei zuzendua, eta 2014ko martxoaren 28ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie libreki manifestatzeko eskubidea baliatzeagatik isuna jarri zaien pertsoneri, eta Alderdi Popularraren abortuaren legearen proiektua arbuiatzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Parlamentu honek bere elkartasuna adierazten die bidegabea jotzen duten lege proiektu baten aurka –abortuarena– libreki manifestatzeko eskubidea baliatzen zutenean eta Antsoaingo klinikara doazen emakumek pairatzen duten jazarpenaren aurkako ezadostasuna adierazten zutenean isuna jarri zitzaizkien pertsoneri.

2. Parlamentu honek berriro ere adierazten du Alderdi Popularraren Abortuaren Lege proiektuaren aurka dagoela eta emakumeek beren sexualitateari buruz libreki erabakitzeko eskubidea aldeztu duela.”

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroak direla eta neurriak hartuko ote diren jakitekoa.

M.^a DEL CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a del Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztutako galdera, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroak direla eta neurriak hartuko ote diren jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Mari Carmen Ochoa andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Ega ibaian hilik agerturiko karramarroei buruzko honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

2013ko urriaren 25ean, parlamentari honek galdera idatzi bat egin zuen Ega ibaian karramarroak hilik agertu izanari buruz. Bertako arrantzaleak ezkor ageri ziren, ez soilik orduko arrantza eskas eta harrigarri urriarengatik, ezpada orain-

go denboraldi honengatik ere; izan ere, orduan ari ziren arrautzak erruten. 2013an, Nafarroako Gobernuak ez zuen arrantza-kuotarik ezarri, plan bat taxutu zelako karramarro autoktonoaren berrezarpenerako. Karramarro autoktonoa hil egiten da karramarro seinaledunak transmititzen zuen bakterio batekin kontaktuan sartzean.

Orain dela gutxi, Lizarrako Arrantzale eta Ehiztari Elkarteak berriro ere salatu zuen Ega ibaian karramarroak hilik agertu direla, ibaiak Lizarran barrena egiten duen tartean arazoak detektatu ostean. Bai Seprona bai Nafarroako Gobernuoko Ingurumen Departamentua ari dira ikertzen Legarian hasi eta ia Alloko zentralera bitarte karramarroak hilik agertzearen arazoak.

Antza denez, paduretako karramarroak nahiz karramarro seinaledunak agertu dira hilik, eta litekeena da habitata partekatzen duten beste espezie batzuetakoak era hil izana. Ere horretan bost hilabeteko epean gertatu den bigarren mehatxu hau dela-eta hauxe jakin nahi dugu:

- Neurri egokirik hartuko al da, oraingoan bai, halako gertakariak berriz gerta ez daitezen?
- Baiezkoan, zer neurri hartuko dira?

Iruñean, 2014ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Ochoa Canela

Galdera, Justiziako Gizarte Zerbitzuko funtzionarioak ez ordeztuko arrazoiei buruzkoa.

SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako galdera, Justiziako Gizarte Zerbitzuko funtzionarioak ez ordeztuko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Santos Cerdán León jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

an, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Genero-indarkeriari buruzko azken txostenek ohartarazten dute bere sakontasunari era konplexutasunari buruz, eta azpimarratzen dute garrantzitsua dela baliabide eta laguntza publikoak mantentzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko eta desagertzeko bidean aurrerabidea egiteko.

Halere, Justiziako Gizarte Zerbitzuko funtzionarioen ordezkapenak egiteko zailtasunak daudela jakin dugu, eta horrek eragin zuzen eta negatiboa dauka genero-indarkeriaren biktimaren emakumeentzako laguntza-sarean.

Hori horrela, honako ahozko galdera hau egingen dugu:

• Zer arrazoi dago lanpostu hain berezietako pertsonak ez ordeztearen atzean?

Iruñean, 2014 apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Galdera, eskualde-laguntzen mapa berriaren definizioari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, eskualde-laguntzen mapa berriaren definizioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

arritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean ahoz erantzuteko:

Europar Batzordeak, 2006ko abenduaren 20ko erabakiaren bidez, Eskualde-laguntzen mapa berria onetsi zuen 2007-2013 aldirako (N 626/2006).

2013ko ekainaren 28an, Batzordeak eskualdeko helburua duten estatuko laguntzei buruzko jarraibideak ezarri zituen 2014-2020 aldirako, zeinen bidez 2014ko ekainaren 30era arte luzatu baitzen e2007tik 2013ra bitarteko jarraibideak aplikatzeko epea.

Espainiako Estatuak 2013ko irailaren 17an erregistratu zituen Europar Batzordean eskualde-laguntzen mapa.

Eskualde-laguntzen maparen definizioa funtsezko tresna bat da agintariak beren esparruetan

egiten diren ekintzailtza-proiektuei begira eman ditzaketen pizgarrien maila zehazteko.

Aurrekontu-murrizketen testuinguru batean, Nafarroako Foru Komunitatean eskualde-laguntzen mapa ezartzea muntako osagai bat izanen da gure erkidegoaren barne-desorekak gainditzeko estrategian, bai eta inbertsioak geureganatzeko tresna baliagarri bat ere.

Laguntza-maila gorena lortzea eskualdearen kalifikazioaren mende eta lurraldeak eskualde-mapa horietan kokatzearen mende dago.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko lehendakariorde Lourdes Goicoechea andreari:

- Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu gaur arte 2014-2020 aldirako eskualde-mapa berria zehazte aldera?

- Gure erkidegoko lurraldeak nola gelditzen dira aldi berriari begira 2014ko ekainaren 30etik aitzina?

- Nafarroako Gobernuak zer irizpide erabili ditu lurralde-esparru ezberdinak eskualde-laguntzen mapa berrian sartzeko edo ez sartzeko?

Iruñean, 2014ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, epe luzeko langileen eta 45 urte baino gehiago dutenen enplegagarritasuna sustatzeko asmoz 2014an indarra duten politikei eta datozen urteetarako aurreikusten direnei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, epe luzeko langileen eta 45 urte baino gehiago dutenen enplegagarritasuna sustatzeko asmoz 2014an indarra duten politikei eta datozen urteetarako aurreikusten direnei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Epe luzeko langabeen eta 45 urte baino gehiago dutenen enplegagarritasuna sustatzeko asmoz 2014an indarra duten politiken eta datozen urteetarako aurreikusten direnen xehetasunak. Horretarako aurreikusitako aurrekontuak ere eskatzen ditut.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, mugako nortasun-nahasmenduaren laguntza integratuari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, mugako nortasun-nahasmenduaren laguntza integratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Laz-

kanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Mugako nortasun-nahasmenduaren laguntza integratuaren barruan:

– Zer baliabide daude gaixo horien tratamenduari erantzuteko eta horientzat aurreikusitako kontrol eta jarraipena egin ahal izateko?

– Zein da pertsona horientzako laguntza eta errehabilitazio psikosozialeko protokoloa?

– Zein da pertsona horientzako egonaldi ertain eta luzeko ohe-kopurua? Eta horietatik, zeintzuk dira publikoak eta zeintzuk dira itunpekoak? Non daude kokaturik?

Iruñean, 2014ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxan dituen aktiboak eta pasiboak Banca Cívicaen alde banatzea baimentzeko erabakirik ez hartzeko arrazoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxan dituen aktiboak eta pasiboak Banca Cívicaen alde banatzea baimentzeko erabakirik ez hartzeko arrazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak zergatik ez zuen hartu Nafarroako Kutxan dituen aktiboak eta pasiboak Banca Cívicaen alde banatzea baimentzeko erabakirik? Halaber, baimenik ez emate hori zer txosten juridikotan eta zer agiritan oinarritu zen, horiek igortzea nahi nuke.

Iruñean, 2014ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Sustapen Ministerioak aurreikusten duen trenbide-plangintzari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Sustapen Ministerioak aurreikusten duen trenbide-plangintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen Departamentuak idatziz erantzuteko:

Sustapen Ministerioaren eta Adif-en 2013ko apirilaren 1eko "Abiadura handiko korridoreen garapen-eredu berria" izeneko agirian adierazten da Zaragoza-Castejón, Iruña-Gasteiz korridorearen barruan, Iruña-Euskadi tartean, hasiera batean planifikatutako jarduketarako aurreikusitako inbertsioa 1.936 milioi eurokoa zela, eta ehuneko

ehun zegoela artean lizitatu gabe. (ikus 53. orrialdea)

Proposamen berri bat ere egiten zen tarte horretarako eta 2018ari begira, hitzez hitz honako hau zioena: "Iruña eta Altsasu bitartean UIC zabalera estandarrera aldatzea eta hirugarren erraila paratzea Altsasutik Gasteizerainoko egungo trenbidean". (Ikus 54. orrialdea)

55. orrialdea, ordea, mapa batean adierazten da Iruñeko Arrizabalagako sarbidetik Altsasuraino UIC bide bakarra egitearen aldeko apustua egiten dela, Zaragozatik Castejónera bitarteko tartean ez bezala, horretan hirugarren trafiko-errail mistoko trenbide bikoitza ageri batia.

Agiri horrek eragindako zalantzak ikusita, hauxe jakin nahi dut:

- Sustapen Ministerioaren trenbide-plangintza indarduneko azken agiriaren arabera, zein da aipatu korridore horretarako proposamena? Tratamendu ezberdina ematen al zaie Iruña-Altsasu tarteari eta Altsasu-Gasteiz tarteari, 2013ko apirilaren 1eko agiri horretan adierazten den moduan? Eta Altsasu-Donostia tarteari? Indarrean dirau 2018ko epe-mugak?

- Gobernuak zer jarrera du plangintza horri dagokionez?

Iruñean, 2014ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

